

2022KO IRAILAK 22

NUKF-REN PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN EMAITZAK

SARRERA

NUKFren Plan Estrategikoa egiteko sortutako lantaldeak eta Batzorde Betearazleak, prozesuaren funtsezko zati gisa, toki entitateetako hautetsi guztiei zuzendutako parte-hartze prozesu bat egitea onetsi zuten.

Parte-hartze prozesu horren helburua hautetsien iritzia biltzea da NUKFren organoek datozen urteetarako NUKFren jarduketa lerroak edo Plan Estrategikoa izango dena zehazteko aurrerago hartu beharko dituzten erabakiak bideratzeko eta gidatzeko.

Parte-hartze prozesua Plan Estrategikoak oinarritzat izango dituen jarduketa lerroen gainean egin da; jarduketa lerroak aldez aurretik Batzorde Betearazleak eta NUKFk onetsitakoak dira.

Honakoak dira jarduketa lerro horiek:

1. NUKFren zeregina, egiten duen ordezkaritza lanari eta zerbitzuak emateari dagokionez.
2. Antolaketa eta profil instituzionala.
3. Araubide Ekonomikoa, Ordainsarien Araubidea, Gardentasuna eta Erantzukizun Soziala.

Apirilean eta maiatzean egindako eremuko bileretan, parte-hartzaileek lerro horien inguruan lanean aritu eta galdetegi batzuk bete dituzte.

Honako txosten honetan, parte-hartze prozesuaren emaitzak laburbiltzen dira, Arbuniés y Lekunberri aholkularitza enpresak egindako txostena oinarritzat harturik.

Equala Iniciativas enpresak berriz, Plan Estrategikoa egiteko prozesuan genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eman du.

HITZAURREA. ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOKALEKUAK

Hasiera gisa, Federazioaren gerora begirako jarduna nolakoa izan beharko litzatekeen pentsatzeko eskatu zitzaizen parte-hartze prozesuko parte-hartzaileei. Zehazki, honako lau aukeren artean bat hautatzeko eskatu zitzaizen:

1. NUKFren egungo funtzionamendua eta egitura egokiak dira. Beti dago zer hobetu, baina ez da beharrezkoa aldaketa handiei ekitea.
2. NUKFk elkartutako entitateei ematen dizkien zerbitzuak handitu beharko lituzke.
3. NUKFren parte-hartzea eta barne-lanerako mekanismoak indartu beharko lirateke, eta ahaleginak parte-hartze handiagoa izatera bideratu, batzorde, ponentzia eta sare berriak zabalduz edo sortuz.
4. NUKFk handitu egin beharko lituzke emandako zerbitzuak, bai eta entitate elkartuen arteko barne-partaidetzarako eta sare-lanerako mekanismoak ere.

Gehiengo batek (%68k) laugarren aukeraren alde egin zuen (zerbitzuak eta parte-hartze mekanismoak handitzea), eta bigarren aukera hautatuena zerbitzuak handitzearena izan zen, %17aren babesa jaso zuena.

Hortaz, argi eta garbi iritzi orokorraren arabera, Federazioak aipatu alderdiak indartu beharko lituzke.

1. FEDERAZIOAREN ZEREGINA

1.1. Ordezkaritza-lana

Federazioak duen lege-izaeraren eta estatutuen arabera, erakundeen eta gizarte eta ekonomia sarearen aurrean toki entitateen ordezkaria izatea du zeregin nagusietakoa. Era berean, toki entitateen topagunea izatea ere haren zeregina da elkarrekin lan egiteko, partekatze eta irtenbideak bilatzeko.

Horrekin loturik, lau pertsonatik hiruk (%76k) ordezkartza hori ongi artikulaturik dagoela iritzi zion. Antzeko ehuneko bat (%74) ongi ordezkartua sentitzen da. Hala ere, elkarriketaturiko lau pertsonatik hiruk (%73) Federazioaren bizitzan parte-hartze handiagoa izan nahiko luke.

Horrenbestez, Federazioak duen ordezkartza-lanaren inguruko iritzia baikorra da gehiengoarentzat. Era berean, aurreko ataleko erantzunekin lerrokaturik, toki hautetsien parte-hartze handiagoa artikulatzearen alde egiten dute itaunduek.

1.2. Zerbitzuak ematea

Toki entitateen ordezkaria izateaz gain, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak zenbait zerbitzu ematen ditu, bere izaeratik eratorriak batzuetan (aholkularitza, informazioa ematea...) edo, besteetan, beharrezkotzat jo delako edo entitateek zuzenean eskatu dituztelako. Parte-hartze prozesuko parte-hartzaileei Federazioaren zerbitzuak ezagutzen dituzten adierazteko eskatu zitzaie eta zerbitzu horiek baloratzeko. Eskatu zitzaie, halaber, haien ustez handitu beharko lirakeen zerbitzuak adierazteko edo, egun eskaintzen ez badira ere, zeintzuk gehitzen ahalko ziren esateko.

1.2.1. Egungo zerbitzuen ezagutza eta balorazioa

Ezagutza graduari dagokionez, 10 parte-hartzaitatik 9k aholkularitza- eta informazio-zerbitzuak ezagutzen dituztela adierazi zuten eta 10etik 7k ordea, politikarientzako eta langile-teknikarientzako prestakuntza zerbitzua eta bide exekutiboko diru-bilketari dagokiona ezagutzen dituzte. Parte-hartzaileen erdiak, gutxi gorabehera, garapen lankidetzako, langileak hautatzeko, %1,5eko tasa kudeatzeko eta beste erakundeen aurrean banakako laguntza jasotzeko zerbitzuak ezagutzen ditu.

Horrenbestez, Federazioak gutxiago ezagutzen diren zerbitzuak hedatzeko jarduketak sendotu eta horretarako formula egokienak pentsatu litzazke.

Hautetsiek zerbitzuen inguruan egiten duten balorazioari dagokionez, nabarmentzekoa da oro har puntuazio ona ematen dietela. Aholkularitza-, informazio- eta %1,5eko tasaren kudeaketa zerbitzuek 5 puntutatik 3,8ko emaitza lortu dute batez beste. Bide exekutiboko diru-bilketakoak berriz 3,9a gainditzen du. Garapen lankidetzako eta langileak hautatzeko zerbitzuek, bestalde, 5etik 3,7ko balorazioa jaso dute eta politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zerbitzuak eta beste erakunde batzuen aurreko banakako laguntzak 3,4a gainditzen dute.

Emaitzak ikusita, aipatzekoa da, batetik, toki ordezkariak ongi baloratzen dituztela Federazioak toki entitateei eskaintzen dizkien zerbitzuak. Hala ere, eta zerbitzu guztietan hobekuntzak egiteaz gain, bereziki areagotu beharko litzateke prestakuntza (segur aski politikariena, Federazioak urtero eskaintzen duen langileen prestakuntza-planaren prestakuntza zabala delako). Halaber, toki entitate bakoitzak banakako arazoetarako Federazioaren laguntza eskatzeko aukera duela gehiago hedatu beharko litzateke.

1.2.2. Zerbitzuen eskaintza handitzea

Parte-hartze prozesuan parte hartu zutenei, halaber, NUKFk eskaintzen dituen zerbitzu batzuk handitzeko aukerari buruz galdetu zitzairen.

Erantzuna baiezkoa izan zen bete-betean. %96ren iritziz beharrezkoa da NUKFk eskaintzen dituen zerbitzuak handitzea. Hala ere, parte-hartzaileek zerbitzuak handitzeko adierazi duten nahia ez da berbera zerbitzu guztien kasuan. Elkarrizketaturiko pertsonen %80k dirulaguntzak eskatzeko aholkularitza zerbitzua handitzea eskatu du eta %77k ordea, baldintza-pleguen eta ordenantzen ereduak egiteko zerbitzua handitzeko nahia adierazi du. Ehunekoak txikiagoak dira ondoren: %55ek administrazio elektronikoarekin lotutako zerbitzua zabaltzea nahi du; %50ek Europar Batasunarekin lotutako aholkularitza handitzea; eta babes gutxiago lortzen dute gero, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako zerbitzuak handitzeko nahiak (%45), Datuen Babesarekin lotutakoak (%43) eta GJH-ekin eta 2030 Agendarekin lotutakoak (%41).

Emaitzak ikusita, batez ere, dirulaguntzak eskatzeko aholkularitza zerbitzua eta baldintza-pleguen eta ordenantzen ereduak egitekoa handitzea pentsa lezake NUKFk. Hori guztia inkesten erdiak beste zerbitzu batzuk handitzeko eskatu dutela ahaztu gabe eta, beraz, hori ere aztertu beharreko aukera dela kontuan hartuta.

1.2.3. Toki entitateetako langileen arloarekin lotutako zerbitzuak

Bestalde, Federazioa toki entitateekin lankidetzan aritzen da langileak hautatzeko prozesuetan epaimahaietan parte hartuta edo horiei laguntza emanaz. Zerbitzu hori handitzeko beharraz galdetuta, baiezko borobila eman zuten inkestatuek: ia %80k esan zuen Federazioak langileak hautatzeko prozesuetan parte-hartze handiagoa eduki beharko lukeela eta %60ren iritziz Federazioak negoziazio kolektiboko prozesuetan toki entitateen ordezkari lanak ere egin beharko lituzke. Iritzi irekia emateko atalean berriz, honakoak proposatzen zituzten: Federazioa egonkortze prozesuetan parte-hartzea, toki entitateei ohiko lanetan laguntzea, lan-poltsak sortzea edota hautapen prozesu zentralizatuak egitea.

Hortaz, toki entitateetako langileen arloarekin lotutako zerbitzuak indartu beharreko esparrua da. Hautatze-prozesuei dagokienez, bereziki indartu behar da zerbitzua. Halako prozesuetan, toki entitateen esanetan, Federazioaren laguntza behar dute eta hala azpimarratzen dute iritzi irekiko erantzunek ere, lan-poltsak edo zentralizaturiko hautatze-prozesuak sortzea eskatzen dutelako. Federazioa negoziazio prozesuetan toki entitateen ordezkari izateko aukera ere aztertu beharko da inkestan adierazitako iritziak ikusita.

1.2.4. Izaera instrumentala duten zerbitzu berriak

Azkenik, Federazioak toki entitateei izaera instrumentala duten zerbitzu berriak emateko aukeraren inguruan galdetu zitzaizen parte-hartzaileei eta inkestan bi zerbitzu zehatz proposatu zitzaizkien: erosketa-zentrala eta arriskuen prebentziorako zerbitzua. Gainera, beste zerbitzu batzuk proposatzeko aukera eman zitzaizen erantzun irekiko atalean. %60 inguru Federazioak aipatu bi zerbitzuak ematearen alde agertu zen. Erantzun irekiko atalean ere beste arlo batzuk aipatu zituzten laguntza-zerbitzuak jasotzeko: juridikoa, kultura arloa, toki polizia mankomunatua, 0-3, kontabilitatea, berdintasuneko zerbitzu teknikoak; baina horiek guztiek ez dute babes handirik lortu parte-hartzaileen artean.

Emaitzak ikusita, Federazioak ikusten duen moduan, erosketa-zentralaren zerbitzua eta laneko arriskuen prebentziokoa emateko aukera aztertzen ahal da.

2. NUKFren ANTOLAMENDUA ETA PROFIL INSTITUZIONALA

2.1. Gobernu-organoak edo ezinbesteko antolamendua

Federazioan sartzea erabakitzen duten toki entitateek osatuta eta haren sozietate izaerari jarraiki, honakoak dira NUKFren gobernu-organoak: Batzar Nagusia, Batzorde Betearazlea eta Lehendakaria eta Lehendakariordeak. Federazioaren Estatutuen arabera, gobernu-organoen artean dago, halaber, Idazkari Nagusia baina, aldi berean, NUKFren langileen egituraren barruan dagoen organoa da.

Beharrezkotzat jo genezakeen antolamendu horretaz gain, Estatutuek izaera boluntarioa duten beste organo batzuk sortzeko aukera ere aurreikusten dute, horien artean atal eta arazo edo gai zehatzak jorrazteko batzorde sektorialak aipatzen dira bereziki.

Egindako prozesu parte-hartzailean, NUKFren antolamenduari buruzko lehenengo zatian, hautetsiek aipatu ezinbesteko antolamendu hori Federazioaren helburu eta funtzioekin bat datorren uste duten jakin nahi zen.

Prozesuaren emaitzen arabera, parte-hartzaileen gehiengo batek uste du Federazioaren antolamendua edo egitura egokia dela. Zehazki, %84,93k hori erantzun du eta %15ek soilik uste du ez dela egokia.

Hala ere, egitura nola hobetu galdetzean, heren batek, zehazki %33k hobekuntzak proposatu ditu.

Proposatutakoen artean hona hemen nabarmentzekoak:

- Zinegotziekin zuzeneko harremana hobetzea batzuetan ez zaielako informazioa iristen, gehienbat, oposizioan badaude.

- Eremuka aurrez aurreko bilerak antolatzea: urtean 2-3 bilera, kontzejuen eta udalerririk txikien parte-hartzeari arreta berezia eskainita.

Hortaz, ondoriozta genezake prozesuan parte hartu zuten hautetsiek NUKFren egungo antolamendua eta egitura oso baikor baloratzen dituztela, nahiz eta hautetsien eta NUKFren organoen arteko hurbilpena eta parte-hartzea areagotzea helburu duten proposamenen bat adierazi duten eta horren inguruan lan egin beharko den.

2.1.1. Batzar Nagusia

Batzar Nagusiaren egungo osakerari eta funtzionamenduari dagokionez, gehiengo zabal batek egokiak direla uste du (%70ek) baina horrek adierazten du %30 ez dela iritzi berekoa.

Batzarraren saioen eta funtzionamenduaren araubidea hobetzeko proposatzen diren hobekuntzei helduta, parte-hartzaileen ia heren batek uste du egokiagoa litzatekeela urtean batzar bat egin beharrean, bi egitea.

Galdetegi batzuetan adierazi dutenez, komenigarria litzateke Batzarrean landuko diren gaiak aztertzeko informazioa eta epeak hobetzea.

Emaitza horiek ikusita, egun Batzarrak duen osaera eta funtzionamendua egokiak direla uste duen gehiengo handi bat dagoela ondoriozta daiteke. Hala ere, parte-hartzaileen heren batek hobekuntzak egin beharko liratekeela uste du baina egungo sistema zalantzan jarri gabe. Federazioak hobekuntza horien inguruan lan egin beharko du Plana egiteko hurrengo fasean.

2.1.2. Batzorde Betearazlea

Batzorde Betearazleari dagokionez, eremuko bileretan Batzordeak egun duen osaera azaldu eta azpimarratu zen. Hala, Batzordea Federazioaren kide diren toki entitateetako 19 ordezkari osatzen dute, gutxienez, eta 25 ordezkari gehienez. Ordezkariak toki entitate motaren eta biztanle tartearen arabera hautatzen dira. Batzordearen berezko kide dira, halaber, NUKFren lehendakaria eta lehendakariordeak.

Prozesu parte-hartzailearen emaitzei begira, gehiengo zabal batek (%68,66k) uste du Batzorde Betearazleko kideak hautatzeko sistema egokia dela eta %31,34k ordea, sistema aldatu beharko litzatekeela uste du.

Hala ere, datu hori ez da guztiz biribila. Izan ere, %50ak lurralde ordezkari bermatzeko eta tipologia ezberdinetako toki entitateen ordezkari eta biztanle tarteen ordezkari berrikusteko eskatu baitu. Horregatik, NUKFren organoetan gai hori landu eta eztabaidatu beharko da NUKFren Plan Estrategikoa zehazterakoan.

Lurralde ordezkariari dagokionez, egungo eskualde-mapari egokitzea proposatu dute.

Bestalde, ikusi dugun moduan, gehiengo batek Batzorde Betearazleko kideak hautatzeko sistema egokia dela uste duen arren, prozesu parte-hartzailearen emaitzak ikusita, biztanle-tarte batzuetan, parte-hartzaileen ehuneko handi batek uste du entitate tipologia eta biztanle-tartearen arabera egokitzen zaien ordezkari-tza eskasa dela. Hala islatu dute bereziki, 500 biztanle baino gehiagoko eta gutxiagoko kontzejuetako ordezkari-ek; 500 biztanle baino gehiagoko eta gutxiagoko udal-erri konposatuetako ordezkari-ek; bai eta 3.000 biztanle baino gutxiagoko udal-errietako-ek ere. Zehazki, profil horiekin parte hartu duten ordezkari-ek %30 inguruk uste du mota horretako bakoitzeko toki entitateen parte-hartzea eskasa dela Batzorde Betearazlean.

Kontzejuen ordezkari-tza handitzea beharrezkoa den galdetuta, parte-hartzaileen iritziak zati-tuta daude; %50ak baietz erantzun du eta beste %50ak ezetz. Kontzeju gehiago dauden eremuetan baietz-koak indar handiagoa du.

Kontzejuen ordezkari-tza handitzeko beste aukera bat proposatu dute: batzordeetan eta lantaldeetan kontzejuen eta udal-erri txiki-ek presentzia areagotzea.

Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatu behar den galdetuta ordea, parte-hartzaileen erantzuna askoz argiagoa da: ia %80k baietz erantzun du baina ez daki hori nola lortu.

Hortaz, egungo Batzorde Betearazlearen osaerari eta funtzionamenduari dagokionez, gehiengoak egokia dela uste du baina aldaketak proposatu dituzte toki entitateen tipologia batzuen eta emakumeen parte-hartzea handitzeko. Halaber, lurralde-ordezkari-tza egungo eskualde-mapa berrira egokitzea beharrezkoa dela ere adierazi dute.

2.1.3. Lehendakari-tza eta Lehendakari-ordetzak

Estatutuei jarraiki, toki entitateak berri-tu ondoren eginiko saioan NUKFko lehendakari-tza hautatzen da eta boto haztatuen gehiengo absolutua lortzen duen toki entitate elkartuko burua izango da lehendakari. Gehiengo hori lortzen ez badu, bigarren bozketa bat egingo da eta emandako boto haztatuen gehiengo-a lortzen duen pertsona izango da hautatua.

Lehendakari-ordetzetarako hautatuko dira, aldiz, kide-tutako toki entitateetako buruak, baldin eta bozketa berean boto haztatu gehien lortu badituzte lehendakari-tzarako hautatutako pertsonaren ondoren. Lehendakari-ordetzak modu horretan bete ezin badira, bozketa berezia egingo da eta ohiko botoen gehiengo soilaz hautatuko dira.

Prozesu parte-hartzailearen emaitzei etorrira, lehendakari-tzari eta lehendakari-ordetzei dagokienez, oro har, parte hartzaile-ek egokitza-t jotzen dute egungo sistema eta, beraz, ez dute aldaketak egiteko premiarik ikusten. Soilik %11k uste du lehendakari-a hautatzeko sistema aldatu behar dela eta %14k berriz, lehendakari-ordet-ak hautatzeko sistema aldatuko luke.

Parte-hartzaileen gehiengoa kargu horiek hautatzeko sistemarekin ados dagoen arren, beharrezkotzat jotzen dute emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatzea (ia %80k hala uste du); eta lehendakariordetzetako bat kontzejuentzat izatea (%60k hala adierazi du).

Gai horietan ere ez dago emaitza erabakigarririk proposamen horiek gauzatzeko moduari dagokionez.

Emaitzak ikusita, lehendakaritza eta lehendakariordetza hautatzeko egungo sistemaren inguruko iritzia baikorra bada ere, kontzejuen eta emakumeen parte-hartzea bermatuko duten irtenbideak bilatu behar direla ondoriozta daiteke.

2.2. Borondatezko antolaketa

Ezinbestekoak diren organoez gain, Federazioan borondatezko beste organo batzuk egon daitezke entitatearen funtzionamendua hobetzen laguntzeko, kidetutako toki entitateen lana eta parte-hartzea erraztuta. Tresna horietako batzuk, batzordeak eta atalak kasu, Estatutuetan bertan aurreikusiak daude eratu ez direnean ere. Beste tresna batzuk berriz, ez daude Estatutuetan aurreikusirik (Sareak adibidez).

Horri loturik, gehiengo zabal batek (%89k) borondatezko organo horien sorrera beharrezkotzat jotzen du baina organo mota zehaztu gabe. Tresna berri horiek sortzeko proposamenak mota askotakoak izan dira: kontzejuen atalaren sorrera nabarmentzen bada ere (%50,79k hori aipatzen du) mankomunitateen atala sortzeko aukerak ere babes handia jaso du (%35,94k hala proposatu du). Hala ere, beste atal batzuk sortzeko proposamenak daude, oso anitzak (eskualdeen, udal bakunen, udak konposatuen atalak etab.). %35,38k egin du atal berri horiek sortzeko proposamena. Bestalde, %40k batzordeak sortzea proposatu du mota askotako gaien inguruan. Sareak sortzeari dagokionez, proposamenen ehunekoa txikiagoa bada ere (%15,38), aurrekoekin erkatuta kontuan hartzekoa da.

Ondorioz, oro har, Federazioak bere funtzionamenduaren barruan beharrezkoak diren organoak izatearen aldeko iritzia argia da. Kontzejuen eta mankomunitateen atalak sortzearen aldeko babes handia dago eta beste atal eta batzordeak sortzeko nahia ere handia da baina bi kasuetan gaiak askotarikoak dira.

3. ARAUBIDE EKONOMIKOA, ORDAINSARIAK, GARDENTASUNA ETA ERANTZUKIZUN SOZIALA

3.1. Kuoten araubidea eta emandako zerbitzuaren kostua jasanaraztea

Kidetutako entitateen kuotak entitate motaren arabera ezartzen dira eta biztanle bakoitzeko zenbateko desberdinetan. Gehiengo zabal batek (%90ek) sistema egokia dela uste du nahiz

eta kasu batzuetan udal eta kontzejuen kuotak aldatzea proposatzen duten, bi entitate horien kuoten batura udal bakunen kuotaren baliokidea izan dadin (egun pixka bat handiagoa da). Proposatzen dute, halaber, udal konposatuaren eta kontzejuen egungo kuoten kalkulua alderantzikatzea udalek kontzejuak baino ekarpen handiagoa egin dezaten, dituzten eskumenekin bat etorriz.

Zerbitzu berriengatik egun aplikatzen ez diren kuota bereziak jasanarazteari dagokionez, iritzia zatituta dago. Batetik, kuota berriak ez ezartzearen aldekoak daude (%50,75) zerbitzu berriak finantzatzeko irtenbideak bilatzea eskatzen dutenak (bereziki, Nafarroako Gobernuaren bidez). Bestetik, kuota horiek ezartzearen alde egiten dutenak daude (%49,25). Azken hauek uste dute NUKFk gerakin handia duen bitartean, ez liratekeela kuota berririk aplikatu behar eta zerbitzu horien entitate onuradunentzako onura eta zerbitzuaren kostu erreala aztertu beharko litzatekeela.

Hortaz, parte-hartzaileek kuoten sistema egokia dela uste dute oro har, udal konposatuaren eta kontzejuen kuotak berrikusi behar diren arren. Halaber, zerbitzu berriengatik kuota bereziak ezartzeari dagokionez, gehiengoak uste du kuota horiek entitate onuraduneri behar bezala aplikatu beharko zaizkiela eta NUKFren egoera ekonomikoaren eta beste finantzaketa-iturriak ez egotearen menpe egon beharko liratekeela.

3.2. Ordezkaritza organoentzako konpentsazio ekonomikoaren sistema

Parte-hartzaileak konpentsazio ekonomikoaren araubide egonkor bat egotearen alde azaldu dira bete-betean (%97), eta bereziki, lehendakaritzarako egoki ikusten dute (%87) eta dedikazioa eskatzen duten Federazioaren jardueretarako (%80). Iritzia ez da hain aldekoa, ordea, Batzorde Betearazleko ordezkarien konpentsazio ekonomikoaren inguruan (%63 alde agertu da) baina aldeko iritzia dago, berriz, Federazioak Batzordean egoteak sortzen dituen gastuak ordaintzeari dagokionez.

Ondorioz, gehiengoak lehendakaritzarako konpentsazio ekonomikoko araubide egonkorra finkatu behar dela uste du bai eta dedikazioa duten jarduketentzako konpentsazioa eta ordezkaritza jarduerarekin lotutako gastuentzako (bereziki, kilometrajea) indemnizazioa ere.

3.3. Publikotasuna eta Gardentasuna

NUKFren publikotasun eta gardentasun araubidea gardentasunaren atariaren, Concejo aldizkariaren, aldizkako informazio-buletinaren, kidetutako entitateei igorritako zuzeneko komunikazioen eta hedabideei emandako informazioaren bidez gauzatzen da. Gardentasunari buruzko legezko betebeharrak betetzen dira eta informazio ekonomikoa ez da inolako erregistrotan aurkezten.

Parte-hartzaile guztiek ia aho batez adierazi dute Federazioaren publikotasun eta gardentasun maila egokia dela. Bi alderdi zehaztu dituzte ordea: batetik, gardentasun hori hautetsi guztiengana iritsi behar dela eta, bestetik, informazio uholdeak bidaltzea ekidin behar dela eraginkortasuna ez galtzeko.

4. ERANTZUKIZUN SOZIALA

NUKF dagoeneko zenbait jarduera egiten ari da erantzukizun sozialarekin lotuta, zehazki, ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetan.

Hala ere, parte-hartze prozesuan parte hartu zuten pertsonen aipatutako arloetan erantzukizun sozial hori areagotu eta sistematizatu beharko litzatekeen galdetu zitzairen. %95ek baietz erantzun zuen eta %5ek ezetz.

Ehuneko horiek ikusita, aipatutako hiru arloetan (ingurumena, NUKFren gizarte-politika eta NUKFren lan-harremanak) erantzukizun sozialeko jarduera-ildoak eta jarduerak zehazteko lanak egitea pentsa daiteke.